

A 2021



Joan Karlos Gerra kaleko 10 eta 14. zenbakietara igotzeko aldapan eta plaza-txoan, auto asko pilatu ohi da.

Auzokoa, auzotarren kezka biltzen

Joan den astean Auzokoa auzo elkarteak bilera deitu zuen, Bidebietaren egoeraz eta gabeziez hitz egiteko. Euri jasek auzoko sarrerako biribilgunean eragin ohi dituzten uholdeak, zirkulazio arazoak, kimatu gabeko zuhaitzak... gai asko izan ziren mahai gainean.

arteko plazatxoan auto asko pilatu ohi dira. "Auto gehiegi dago, bai maldan, eta baita plazatxoan ere. Anbulantziek eta taxiak ez dute aldapatxoa igo nahi, plazatxoan ez dagoelako buelta emateko lekurik, eta atzeraka jaitsi behar dutelako.

Euria eta kimatu gabeko zuhaitzak. Hauexek dira, oraindik ere, auzotarren kezka nagusiak. Udazkeneko lehen egun euritsuek arazoak eragin dituztela salatu zuten bilerara bertaraturakoeak. Euria gogotik egiten duenean, euri-ura Mendiolatik ziztu bizian jaisten da, eta biribilgunean pilatzen da. Biribilguneak gainezka egin ez dezan, auzotarrek beraiek estoldak zabaldu behar izaten



Euria barra-barra botatzen duenean, biribilgune inguruko estoldak askatu behar izaten dituzte ura igaro dadin.

dituzte. Gaiztarron ere eurijasek arazo franko sortzen dituela nabarmendu zuen bizilagun batek: "Euria, maldan behera, saihesbideko tunelera erortzen da, eta bertan putzuak sortzen dira".

Plazatxoan biribilgune moduko bat egin beharko lukete, erdiko zatian autorik egon ez dadin. Horrekin batera, hesiak jarri beharko lituzkete maldan, autoa uztea debekaturik dagoen aldean, inork autoa utz ez dezan", dio gazte batek.


Zirkulazio kontuak

Zirkulazioarekin lotutako gai batzuk ere aipatu ziren: besteak beste, Joan Karlos Gerra kaleko 10 eta 14. zenbakietara autoz igotzeko komeriak. Igo beharreko aldapan, alde bakarrean utz daitezke autoak, baina, hala ere, bi alboetan utzi ohi dituzte. Hori gutxi balitz, bi etxeen

Drogarekin kezkatuta

Bestalde, azkenaldian gero eta drogazale gehiago egoten direla nabarmendu zuten bileran: "Droga saldu ohi dute Azkuene kalera jaisteko eskaileren inguruan". Azkenik, Gaiztarroko Zedro plazan xiringa ugari egoten omen dira.

Konpondu beharreko hesia



Asteak dira Joan Karlos Gerra kaleko parkeko hesi bat hondatu zela. Hesia lehenbait lehen konpondu behar dute. Izan ere, haurrak hortik atera ohi dira, parkearen atzealdeko kalera eroritako pilotak edo baloiak jasotzera. Bertan autoak ibiltzen dira, eta arriskua sor liteke.



Auzotarrak kexu dira zenbait tokitan, tartean Zedro plazan, zuhaitzak aspaldi ez dituztelako kimatu